

ERREKAKO URAK

Idoia FRAILE

("Errenteriako Hiria" ipuin lehiaketa, lehen saria)

-Ixilduko al haiz, tentel hori? Urde madarikatua! Deabruak berak ere ez diz hik adinako enbarazurik egingo! Redios!- eta katilukada esneri xurrupegin zion.

Ez zuen gizon hark katilutik txukun eta tajuz edaten ikasi, ez kokotzetik behera ttantaren bat zintzilik sumatzean itxurazko keinuren bat sekula egin ere, hatzamar lodiez joan-etorri pare bat egin eta kitto! lehortzen zuen, edo-ta hatzamarrak zikintxo zituela erizten bazuen, alkondara muturra aski izaten zuen horretarako. Ondorenean, sudur eta ezarriak karkaxa botatzearen ahaleginean sintonia pare bat errezitatu, eta atzera eztarriko zulora bideraturik zuela ziurtatzean, muturra katilura urreratzen zuen gehientsuenetan.

- Esnea! Esnea bakarrik! Ez al da etxe pobre honetan arraultz frijitu pare bat eta xingar zati bat sikira? -eta emaztearen pau su oro begirik kendu gabe jarraitzen zuen, eskupetarekin zenean erbiren bat sastraka artean sumatzean fin jarraitzen zitzaion bezala.

Kattalinek ilea bildurik izaten zuen usu. Benetan zuen ile ederra. Zapia ordea aukeran estutxo ipintzen zuen gehientsuenen ustetan. baliteke goizean goizeko presak eraginda edo.

- Ilargia beragatik ere ez zintuzket aldatuko, Kattalin, ez horixe! -xuxurlatu zion behin belarri ertzera Indaleziok San Agustinetako erromeria amaitzean zenean. Eta emeki-emeki aintzira geldo baten uraren ixilean esku bakar batez gerria inguratu zion. Eskuaz estutu.

- Ez hadi lotsagabea izan, Indalezio! Atrebitzea ere! -eta gehiagorik esan gabe gerria bapatean askatu zion.

- Gurdia belarraz kargatu beharra zeukenagu! Banoan beraz etxaldera.

"Ttikia zara Ilargi Amandrea, ttikia lurraren ondoan edo-ta eguzkiaren alboan. Handiegi zara niretzat ordea. Eskuetan hartu nahi zintuzket eta ezin zaitut" hatz luzexka haiei muin eman eskuaz, eta airea boteaz igortzen zuen urrutira, ilargira, espaziora, edo bazirenik ere sekula entzun ez zuen galaxiaren batetara.

Ilogora zenean zernahitarako bazuen kemenik, ez zen egun osoan geratu ere egiten: Malkaerrekako zuri-garbiketak, Prudentxioneko enkarguak bete, sorora jo, amonari bazkaritakoan esku bat bota...

Ilbehera zenean berriz, hegoak baturiko tximeleta zirudien. Tximeleta txuri bat haiz? Ala marroia? edo motta laranjaduna agian? Gaitza zen jakiten benetan, honelakoetan ez zekien inork Kattalinen barruaren berri.



Ilargia maite zuen, maite zituen gauza guztiak baino gehiago.

Hala, Indaleziori hitz eman zion.

Egunoroko erronka izaten zen hau. Ez zen ordea honetara inoiz ohitu. Ez zuen lortzen. Huraxe jasatea ezina zitzaion. Zapuztu eta kikil arazi egiten zuten goizaldeko eleok kristalezko poto batean legokeen armairu gaineko lore ximel bat bailitzan. Jakina, prest izaten zuen aurretiaz guztia aldamenean, eta azkar ateratzen zion mahai gainera marmarrik luzatzeko astirik eman ez ziezaion. Baina platera uzten zuenaldi bakoitzean bere lepokoaren perlatxo bat galtzen zuela zeritzaion, eta senarrak gozoki irensten zuela, ozpindurik zenbaitetan, gabe besteetan, larrazkenean arbolak hostoak galdu eta Amalurrak irensten dituen bezala.

- Amalur, noiz hotsegingo didan? Noiz eramango naun? Amalur maitea, entzuten al didan? -eta begiak herstein Ave Maria Ora Pronobis gratiam plenam, dominus tecum", kan tuak eraman zuen. Jainko maitea, entzuniezadazu, noiz helduko da nire ordua?

Eta begiak sapairantz jasorik Jainkoarekin solastatzen zen, ilunpe hartantxe argi bakarra bailuen. Hura eta amona.

- Ez arren, ez dezadan honelakorik esan, zer egingo luke gure Josetxok gainerantzean? amona zaharturik da dagoeneko, eta laster aldegingo du hilen mundura. Nork zainduko luke orduan? Eta soroez nor arduratu? Nork jaten eman aziendari?

Emazteki berriak, senartzat hartu zuen hura katiluz esnea edaten ikusi zuen lehen aldian oraindik erabat zabaltzera ausartu ez ziren begi uzkurak, zabal-zabal egin zituen, itsasoa lehen aldiz ikusi bailuen. Baina ez zen senar berriarengan finkoki erreparatzen ausartu ere, ez zeharka bederen begiradaxo bat botatzeko gai izan ere. Txarondotarren ohitura izan bide zen huraxe, eta honetara moldatu beharko zuen. Asko bait dira emazteki berriak baserriratzen ikasi beharreko ohiturak, senarraren apetak, ordu-tegi moldaera, lan-egite moduak...

- Utz ezak pakean ume gaixoa! -eta ohiturak baino errukiak bultzaturik burua jiratu zuen sutondorantz emakumeak.

- Umea! Umea, jan eta lo besterik egiten ez duen urdanga hori? Jiumm eta ARGG! intzirika egun santu osoan, eta hizketan ere ez din ikasi! Deabruaren semea dun horixe, deabrua hezur eta haragitan!

- Ixil hadi, arren! Jainkoak gaztigatuko gaitu! Aski da! -moztu zuen garraisi ozen eta ezinduak.

Gorrotoa zerien begi haiei. Hamar urte haietako samina eta nahigabea.

- Zoritzarrekoa! Horixe dun hire erraietatik sorturiko fruitua! Fruitu bakarra! Tentazioan galdua habil. Evaren jarraitzaile fin! Goxoa zegoen, ez da? Ala erakargarria baino, ez? Hik ere hozk, hozk egin dion sagar gorritzari. Isaias profetaren hitzak ez al ditun bada gogoan? Ez al haiz oroitzen Don Pedrok sermoian esanikoaz? Dagoeneko ahantzi? Aspaldian ez naun, ez, elizara joan. Zertarako? Hire haragiaren grinaz eta hiregana bidalitako maldizioaz marmarrean iharduteko? Bai, bazekizkinat kontu horiek, eta baita Bibliakontuak ere. Entzuten al didan? Begi eta belarriak erne al dauzkanan oraindik? Ala daogeneko kikildu eta nigar batean urtzen ari haiz? Madarikatua! Galbidean barna hoa, ilunpetan, aterik inon topatzen ez!

- Nahikoa! Astakiloa! Ez ezak horretan jarrai! Ez honelakorik esan! Jainkoa haserretu eta mendekatu egingo duk, eta maldizioen bat jaurtikiko dik gurera!

- Atso sorgina! Presta ezan bada ukendu bat! Oraintxe! Oraintxe dun sasoi! Eta erakar ezan Josetxo bere honera. Ez al dun horretarako ahalmenik? Aker Jaunaren baimena behar al dun bada horretarako ere? Txarondotarren izena ederki zapuztu dun. Alu hori...

- Ixilik! Txoratu al haiz ala? Zer esaten ari haiz? -eta eskuak Josetxoren ilea laztantzeari utzi eta begietara eraman zituen.

- Nik? Zer diodan nik? Herritarrek esana, besterik ez. Horixe diote denek.

- Jainkoaren eskariz, ixil zaitela!

- Hoa Indalezio! Hoa hemendik! Aldegin ezak ene bistatik! - eta amonaren sudurraren alde banatan erreka bi sortu zirenean, antiojuak lurreratu egin ziren.

Josetxok amona nigarrez ikustean amari begiratu zion, eta orduan bera ere nigarrez hasi zen.

Ardo ttantta pare bat edalontzira bota, xurrua batez gluk! eta barrura bota ondoren, ukabilkada bat mahai gainean jo, eta atea kolpetik hertsu zuen.

- Ixo, Josetxo, ixo. Ez nigarrik egin. Pasa da dena eta! Ale! Ale! Moñoño! Nahikoa da, entzun? Etorri maite hori, etorri nire altzora- Besoetan ozta-ozta jasotzen zuen elbarria, belauartearen eserrazten zuen, ez bait zen jada magalean kabitzen.

- Etorri pollit hori, etorri, ilea laztanduko dizut. Hain da ile ederra, ez da?

Haurrak ez zuen ulertu zuenaren keinurik inoiz egin, baina amatxoren epeltasuna sumatzean, irribarre egiten zuen. Gogoko zuen hauxe, kobazulo sarreretan egin ohi diren hotsak haizeratzen zituen pozaren pozez.

- Ene bada! Gure Mari hasi zaigu Endaitzpeko kobatik kantari! -gaineratzen zuen amonak.

Honetxek xukatzen zituen Kattalinen malkoak.

Honelakoak izaten ziren ilunabar aunitz Txarondon, baita bazkalondo zenbait ere, negu partean batipat.

- Ixo Josetxo, ixo! Ez ba nigarrik egin! Pasa da dena eta! Jainkoari eskerrak, pasa da! Hurbildu nire epeltasunera, enetxo!

Sagastia zuten Txarondo aitzinean. Herren zebilen, ezin zuen jaso. Beheko xenda bidea hartu zuen. Ortzia logale zen, eta supazterrean bildurik izan bide ziren han goiko bizilagunak. Azkar mugitu beharko zuen. Urrunetik Txarondori axolagabeki begiratu zion. Kea zerion tximiniari.

- Zapia ekarri behar nuen, haize zakar honek ilea astindu, eta ez dit bidea ikusten ere uzten!

Aurreraxeago enbor etzan bat topatu zuen. Atzekaldean eseri zen. Hezetasuna nabari zitzaion, lurrari, enborrari, horbelari... Izerdia kopetari.

- Gose zara? Baduzu jateko gogorik? Ogitarteko bat prestatu dizut!- eta ogikozkor bat atera zion poltsatik, eta gazta zati bat erdibitu.

- Torizu! Hau zure gustokoa da eta egizu lo!

Eta mementu batez arbolaren beha pentsamendua galdu zuela ohartzean, bekokiko izerdia lehortu, eta firmeki luzatu zituen belauak. Azkar mugitu beharko zuen. Astunegi zitzaion ordea. Ezin zuen. Ttikia zenean magalean harat-honat kulunkan makina bat lo kantu abestuek zizkion, baina orain ezin zuen, eta ilunak harrapatu baino lehen jaitsi beharko zuen.

Haize boladak gonak astindarazi zizkion. Masailak gorritu. Mutikoaren botoiak dirdir egiten zuten argitasun exkaxean. Emakumeak ez zion begirik kentzen, ez zuen bururik mugitzen, bidea ikusteko baino ez.

- Ixo Josetxo, ixo! Ez ezazu hotsik atera. Hurbildu nire magalaren epeltasunera, eta egizu lo.

Kamioa sumatzen zen urrutian. Mendi muinoaren bestekaldean bizpahiru baserrik behar zuen egon. Mina zuen oinetan, min ematen zioten oinetakoek. Ez zuen makurtzerik. Izerdi tanta zerion masailetik irristen behera. Haize hotza zebilen. Zitzu esku-tua. Estalkia egoki ipini zion haurrari, begiak eta bekokia bakarrik agerian utzi.

Benetan bai duela ile ederra, ez da ala?- eta laztantzeari ekin zion.

Egarriak zen. Ilunaren arrastoa ez zen urrun. Iratzeak bideak oztopatzen zion. Elorri aldaxkak zituen bidertzean han-hemenka. Erne ibili beharra zuen. Aspaldian bide hartatik ez zen inor pasea. Nabaria zen. "Kamioa egin zutenetik...- pentsatu zuen.

Amurruinetara bai, garai batean aski gustora jeisten ginen"- eta irribarre inbisibile bat imajinatu zuen.

Sastraka artean zerbait mugitu zen, trikuren bat edo. Nekatuta zegoen. Astun zitzaion haurra, eta mementuoro heltze moduaz aldatzen ari zen. Min zuen gerrian.

- Ixo Josetxo, laster helduko gara, berehala ailegatuko gara, eta pasako da dena.

Ilargiaren argiak uretan dirdir egiten zuen.

- Begira Josetxo, Ilargi Amandrea. Begira uretan nola egiten duen dirdir. Bidea markatzen digu.

Ixilgune bat egin, burua altxa, eta amatxori begiratu zion. Amatxok haurra bi bular epelean aurka estutu zuen.

- Ez Josetxo, ez ditut eskuak mantalarekin lehortuko, goazen aurrera.